

Erabilera anitzeko gunea Munibe plazan

Xabier Maria Munibe plazan aktuazio urbanistiko bat gauzatzeko proiektua da hau. Bergara bizitza kultural handia duen herria dela kontuan izanik eta helburu horretarako dauden azpiegitura urriak kontuan izanik, proiektu honen helburua eszenatoki egonkor bat plaza honetan gauzatzea da. Gaur egun, ekintzaren bat antolatzen denean helburu honetarako prestatuta dagoen kamioia erabiltzen da, baina kamioi honek gabezia garrantzitsuak ditu.

Espazio honetan umeen aisialdirako gunea estali bat jartzea ere proposatzen da, Bergaran ez baitago ezaugarri hauek dituen toki askorik.

Jolasgune hau ez da ohikoa izango. Jarriko diren jolask, haurren irudimena lantzerantz bideratutakoak izango direlako. “Playground” izeneko jolasak dira, gero eta ezagunagoak gaur egun.

Proiektu hau osatzen duten gunek elkarlotuta daude eta elkar aberasten dute. Eszenatokia erabiltzen ari den bitartean euria egiten badu, aisialdi guneko estalkiak ekintza horretarako estalpe moduan funtzionatuko du. Horrez gain, euria egiten duenean erraz jar eta ken daitekeen beste estalki bat ere egongo da. Gaur egun dagoen aukera bakarra Udalaren karpeta jartea da, honek dakarren lan guztiarekin.

Proiektu honek guztia erraztuko du, estalkia bakarrik jarri beharko delako.

Bukatzeko, esan beharra dago proiektu honen beste helburuetako bat, irala kalean sortu den masifikazioari irteera ematea dela, baita Bidekurutzeta kaleari eta San Martin plazari bizitasuna ematea, bi hauek azken urteetan bizitasuna galdu dutelako.